



# Txintxarrien hotsarekin errotuko da UEMA Eguna

**ALEGIA** ▶ Etzi egingo dute Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) Eguna, 'Herria da gorputza, hizkuntza bihotza: euskararen taupada txintxarrien hotsa' lelopean; egun osoko festa, euskararen alde ▶ 5

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

«Lehentasuna euskarazko eskaintza indartzea» da prentsa arloarentzat. ▶ 6

L. GARCIA



## San Pedro eguna ospatu dute Asteasun, Leaburun eta Urkizun

**TOLOSALDEA** ▶ Mahaiaren bueltan elkartu ziren herritarrak atzo, festaren aitzakian ▶ 4

TOLOSA ▶

## Koldobika Jauregi alkizarraren proiektua, 750. urteurrenerako

12-14 eskultura jarriko ditu; atzo bisita gidatua egin zuen tailerrean ▶ 2



Koldobika Jauregi. E. EZEIZA

TOLOSA ▶

Amaroz auzoa, jaietan bete-betean ▶ 3



laz bezala, gaur ere jolasak izango dira txikienezat. J. ASTIBIA

### Udaberriko sustapena

Apirilean, maiatzean eta ekainean bakarrik.

8 geranioz osaturiko erretilua **14€**

"Zatoz gure instalazio herriak ezagutzera eta zure landarea aukeratzeko orduan edo eta zurekin gehien dijoan loraintza proiektu hori aurrera eramateko behar duzun aholkularitza izango duzu."

Ramon Zuloaga (Zuloaga & Gureak-eko Gertentza)

943 556 109 - Iparralde bidea z/g. 20014 Astigarraga. Futbol zelaiaren aurrean.



## KULTURA ▶



**Lan eta lan.** Hitu hilabete daramatzate Koldobika Jauregi eta bere hiru lankideek proiektu hau gauzatzen. Konpresoreak eta zorroztarriak erabiltzen dituzte eskulturak gauzatzeko. E. EZEIZA



**Harria.** Eskultura honetan, besteak beste, hizki txinoak, San Adriango tunela eta Iturriozko baserria hartzen ditu erreferente. E. EZEIZA



**Arkitektura oinarri.** Lan gehienek arkitekturako elementuekin lotura dute, baia erlijio eta Zuberoako kantuekin ere. E. EZEIZA

## KOLDOBIKA JAUREGI ▶ ESKULTOREA

## «Denak ere hemengo gaiekin lotuta daude»

12-14 eskulturez osatutako proiektu bat ari da egiten alkizarra

## ESTI EZEIZA

Tolosaren 750. urteurrena dela eta, Koldobika Jauregi (Alkiza, 1959) eskultoreak erakusketa bat egingo du Tolosan. Betiko erakusketatik kanpo dago hau, bai neurriengatik, bai espazio-arengatik eta baita bere mamiengatik ere. Tamaina handiko lanak dira, marmolez zein egurrez eginak, Euskal Herriko gaiekin lotutakoak. Erakusketa uztaila, abuztua eta iraila bitartean egongo da ikusgai eta guztira hamabi artelan mirestu ahal izango dira. Bitartean, atzo bisita gidatu bat egin ahal izan genuen, eskultoreak Alkizan duen tallerretik barna.

**Nondik abiatu da proiektua?**  
750. urteurrena dela eta, nik zerbait egitea nahi zuten; hala, proposamen bat aurkeztu nien

eta adostasun batera iritsi ginen. Hasiera batean, barrurako eskultoretan pentsatu genuen, baina azkenean, kanporako egitea erabaki dugu.

**Zertan datza proiektua?**

12-14 eskulturek osatzen dute, ematen didan denboraren arabera. Amaitzean, batzuk Zabalarreta parke inguruan ipiniko ditugu, besteren bat San Frantzisko aldean eta Santa Maria eliza ondoan ere bai.

**Zein da bisita gidatu honen helburua?**

Askotan jendeak ikusten dituzte gauzak, piezak kalean, amaituta, eta pixka bat anonimoa gertatzen da. Hala, honekin ikusten duzue zenbat zikin sortzen den, zer lan egiten dugun. Azken batean, piezak erakusteko beste modu bat da.

Pieza hauek 4 eta 16 tona bitarteko pisua dute, eta gero, mugitzeko garaian eta, ikustekoa da.

**Zein gai jorratu dituzu lan hauekin?**

Nire gaiak asko izan dira. Bate-tik, elizarekin zerkusia duten zenbait datu hartu ditut. Beste batzuk, berriz, Euskal Herriko zenbait gaiekin lotutako piezak dira, esaterako, kirolarekin, altxatzeko harriarekin. Baita leku konkretuekin ere; honen kasua da Aiako Iturriozko baserriarena. Denak ere, hemengo gaiekin lotuta daude, pieza batzuk libreagoak dira eta beste batzuk ez. Azkenik, batzuk Zuberoako aha-petik kantatutako abesti batzuk ardatz hartuta, guztia lotuta dago.

**Noiz egongo dira ikusgai?**


E. EZEIZA

Oraindik ez dakigu. Hasiera batean, uztailaren 6-7az hitz egiten zuten, baina ez dakigu ziur, konkretatu gabe dago.

**Nolakoa da eskultura baten eratze prozesua?**

Nik diseinatzen ditut eta, gero, lau pertsona ari gara lanean. Eskultura bat bakarrik denean, normalean, neronek egiten dut, baina horrelako proiektu bat egiteko ezin da. Hiru hilabete dauzkagu eta lau lagun ari gara lanean, nik bakarrik

urtebete-edo beharko nuke eta hau bukatzeko. Beste hiruak Debako eskolan ikasitako eskultore gazteak dira, eta aste nahiz asteburu hemen ari dira lanean.

**750. urteurrenari erreferentzia egiten dion eskulturatik bai al dago proiektu honetan?**

Ez, piezarik konkretuki ez dago, baina hor dago Tolosaren ibilbidearen erreferentzia.

**Zein ezaugarri ditu materialak?**

Harria erabili dugu, aterperik ez dagoenez, egurra ezin bainuen erabili. Erabilitako harriak hemengoak dira, batzuk Lasturrekoak, beste batzuk berriz Markinakoak. Gainera, harri hauek berezitasun bat dute; berez harrobira joan eta banan-bana aukeratu behar izan ditugu, eta proiektua gero egin. Karratuak ateratzen dira, eta berez apurtu egiten dira, horregatik, askok plano itxura dute. Hala, berez apurtua dagoen zati hori erabiltzen dut eta beste informazio bat erantsi.

### ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Irudietan.**

www.tolosaldeko-hitza.info gure webgunean, irudietan atalean, ikusgai dituzue sanjoanetako argazkiak. Jaietako momenturik esanguratsuenak gure argazkietan bildu ditugu.

**ELOLA**  
bede ALTZARIAK

- Etxeko altzariak.  
- Ordenagailuz egindako proiektuak.  
- Armairu enpotratuak neurrira.

Tel.: 943 65 29 01  
Lizardi poeta, 2  
TOLOSA

lo egiteko eta atsedean hartzeko onena

## iragarki laburrak ▶

**LANA**

**Zerbitzaria.** Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako.  
Lanegun osorako. 677 32 99 34.

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua.  
635 74 52 91.

JAIK ▶

# Amaroz bete-betean jaietan murgilduta

Gaur hasi eta igandera bitarte hamaika ekitaldi izango da auzoan; gaur, Tolosako Musika Bandaren emanaldia



Bakailao Ajoarriero Lehiaketak arrakasta handia izan ohi du; argazkian, iaz eginikoa. JAIONE ASTIBIA

## EGITARAUA ▶ EGUNEZ EGUN

### GAUR

**16:00.** Txoko Txikin, haurrentzako jolasak.  
**16:30.** Piraten jokoak eta Karaokea.  
**18:30.** Sari banaketak eta ondoren txokolatada Itun Txulo elkartearen.  
**19:00.** Txokolatada jubilatuentzat, Beti Gazteak elkartearen.  
**20:00.** Tolosako Musika Bandaren eta Abeslari Lagunak abesbatzaren kontzertua.  
**20:00.** Koadrilen arteko trikipoteoa; ondoren, afaria sagardotegian.  
**00:00.** Atila y los Unos taldearen kontzertua.

### BIHAR

**08:00.** Garbiketa orokorra, Txukun Txarra zaharra taldearekin.

**09:30.** Diana, Amarozko Konpon Ezinak taldearekin.  
**10:00.** Amarozko Txirindulari Proba VI. Patxi Rodrigez memoria, Oriako txirindulari eskolak antolatuta.  
**10:30.** Fatxada eta balkoi loratuen lehiaketa.  
**10:30.** Haur jolasak, puzgarriak, eskulanak, buruhandiak...  
**11:30.** Bakailu Ajoarriero lehiaketa.  
**12:30.** Haurren balet emanaldia.  
**14:30.** Lehiaketako emaitzak; ondoren, bazkaria.  
**15:30.** Haur jolasak.  
**16:30.** IV. Mus Azkarra Txapelketa Itun Txulo elkartearen.  
**20:00.** Amarozko Danborrada nagusiak.  
**00:00.** Disko top festa.

**00:00.** Karroza dantzaldia Zelaia anaiak taldearekin.

### ETZI

**08:00.** Garbiketa orokorra Betikoak taldearekin.  
**09:30.** Iurreko Andra Mari elizan, Amarozko hildakoen aldeko meza.  
**09:30.** Diana, Tolosako txistulariekin.  
**10:30.** Beti Gazteak elkartearen, eskularen erakusketa.  
**10:30.** Euskal erromeria, Amarozko dantza taldearekin.  
**13:30.** Fatxada eta balkoi loratu eta apainduenen emaitzak eta sari banaketa.  
**14:30.** Auzo bazkaria.  
**18:30.** Amarozko dantza taldearen emanaldia eta aurrekua.  
**20:00.** Afari-merienda: sardin erreak, sagardoa, musika...

### NOELIA LATABURU

Batean eta bestean, uda, ezbairik gabe, jaien urtaroa da; beroak, lagunarteko giroak, ekitaldiek... guztia gutxi da parrandarako aitzakia bilatzeko. Bada, herriek ez ezik, auzoek ere euren jaiak antolatzen dituzte. Amaroz auzokoak tolosar askoren egutegian ezinbesteko bilakatu dira, zer esanik ez, auzokoentzat bertakoentzat. Bada, uztaileko lehen asteburuarekin batera, auzokoak jai kolorez jantziko dira; eta, gaur hasi eta igandera bitarte, izango da zer gozatua.

Gaurkoan, etxeko gaztetxoenei zuzendutako arratsaldea izango da, haietzako ekitaldiak prestatu baitituzte. Hala ere, antolatzaileek gauean izango diren kultur ekitaldiak goraiatu dituzte. Izan ere, bigarren urtez Tolosako Musika Bandak kontzertua eskainiko du. Lagunak Abeslari abesbatzarekin batera. Hendaia Gaztelu Zahar abesbatzak ere hartuko du parte emanaldian. «Guztiz aisialdirako ekitaldiak bezain garrantzitsuak dira kultura sustatzen dutenak», azaldu du Joxepe Artoiak. «Iazko emanaldiak sekulako arrakasta izan zenez, errepikatzea oso egokia iruditu zaigu; gainera, maila handiko emanaldia da».

### Atila y los Unos, ezinbesteko

Musika Bandak urtero egiten zuen agerraldia auzoko jaietan, baina oraingoan aho goxoz babestuta ailegatuko da. Joakin Artetxeren zuzendaritzapean bi abesbatzek hartuko dute parte lehenik; ondoren, Musika Banda ariko da Luis Mari Garziaren gidaritzapean; eta amaieran, abesbatzek eta musika bandak bat egingo dute.

Eltze askotako burruntzalia direla jakina da: Atila y los Unos taldekoak dira eta Amarozko jaietan ezinbesteko bilakatu dira aspaldi honetan. Aurten ere ez dira faltako eta kontzertua eskainiko dute gaurkoan. Ziur ez dutela asperetzeko betarik emango.

MUSIKA ▶

## Iñaki Salvador musikariak irekiko du Tolosandblues

Gaur ariko da Fronton kafetegian, 23:00etan, eta igandera bitarte sei saio izango dira

### N. LATABURU

Gaur hasiko da Tolosandblues jaialdiaren bigarren edizioa, Iñaki Salvador musikariaren eskutik. 23:00etatik aurrera eskainiko du emanaldia Fronton kafetegian. Hala, igandera bitarte, blues eta jazz doinuak izango dira nagusi, gainontzeko bost saioekin batera. Biharkoan, berriz, antolatzaileen esanetan, «aurtengo edizioko kontzertu garrantzitsuenaren» txanda izango da, Paul Lamb & The Kings Snakes taldearen eskutik. 22:00etan izango da, Plaza Berriko kioskoan.

Hala ere, bihar blues doinuak gune gehiagotan zabalduko ditu Tolosandblues jaialdiak. Fronton kafetegian eta herriko kaleetan barrena, alegia. Lehen guneak beste bi saio ezberdin hartuko ditu, batetik, Stay blues taldea 20:00etatik aurrera eta, bestetik, hiru musikariek osatutako saioa, 00:30ean. Naco Goñi, Francisco Simon eta Edu Big Hands eskainiko dute, hurrenez hurren, euren musika doinuak bertan biltzen diren entzuleei. 19:00etan hasi eta 22:00ak bitarte, halaber, Amama Luisa Big Hand taldea kaleak alaituko ditu.

Jaialdiarekin amaitzeko Elkano Browning Cream-en emanaldia izango da etzi, igandearrekin, Fronton kafetegian, 20:00etan hasita. Antolatzaileek jendea animatu nahi du kontzertuetara joan dadin.

## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

### ILARAK, FAKTURAK, KOMISIOAK... AHAZTU!

### HELBIDERATU ZURE KUOTA

### EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA

### egunean 0,18 zentimoren truke buzoian





## SAN PEDRO JAIK ▶



Leaburun hamaiketakoa —ezkerreko argazkian— eskaini zuten Herriko Ostatuan eta Urkizun bazkaltzeko elkartu ziren auzotarrak. I. GARCIA

# Mahaiaren inguruan

Asteasun, Leaburun eta Urkizun ospatu zuten atzo San Pedro eguna bapo jan eta edanez



Abesbatzak saioa eskaini zuen elizaren atepean meza eta hamaiketakoaren tartean. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

San Pedro egunean jatorduak izan ziren nagusi atzo. Asteasun, Leaburun eta Urkizun mahaiaren bueltan egin zituzten ekitaldi nagusienak. Hodeiek tarteka beren aurpegi ilunena erakutsi bazuten ere, ez zuten negarrik egin eta festa giroan bildutakoak ez ziren, behintzat, busti.

Leaburun Herriko Ostatuan bildu ziren hamaiketako dotorea egiteko. Aurretik meza eta herriko dantzarien saioa izan zituzten. Batez ere edadetuenak elkartu ziren salda eta beste jaki goxoak dastatzeko. Urkizun 25 bat lagun elkartu ziren ohiko bazkaria egiteko. Ohiturari jarraituz ere, bertan izan ziren Jokin Bildarraz Tolosako alkatea eta Olatz Peon alkateordea.

Asteasun, Elizmendi auzoko eliza izan zen goizeko ekitaldien ardatza. Bertan egin zen, noski, meza nagusia. Ondoren koroak emanaldia eskaini zuen elizaren atepean. Hamaiketakoaren txanda izan zen segidan eta baita Asteasuko Pilota Eskolako I. Txapelketaren finalak ere: txikienetan, Lander Mujika 10, Alaia Goñi 9; txikien 2. mailan, Julen Aizpuru 10, Igor Jauregi 1; benjaminetan, Irati Otaegi 12, Hodei Iraola 2; alebinetan, Jon Ander Artaza 16, Jon Zubeldia 10; eta handien mailan, Julen Urruzola 16, Yeray Otaegi 8 izan ziren emaitzak. Bestalde, plazatik abiatuta manifestazioa egingo dute gaur, 20:00etan, *Eskubide zibil eta politikoen alde eta Estatus politikoa orain lelopean.*

## EGITARAUA ▶ GAUR

**ARESO**  
21:00. Afaria.

**ASTEASU**  
**JUBILATUEN ETA**  
**KOADRILEN EGUNA**  
11:15. Meza.

**Ondoren.** Aitzondo elkarteak herriko jubilatuei eskainitako hamaiketakoa.

**13:30.** Bertso eta trikitixa saioa plazan, Telleria eta Zeberio bertsolariekin eta Xapre eta Zaharra trikitilariekin.

**14:30.** Jubilatuen bazkaria frontoian bertsolariekin eta trikitilariekin.

**14:30.** Koadrilen bazkaria herriko plazan.

**Arratsaldean zehar.** Laja eta

Izer eta Epelde eta Lutxurdio trikitilariak ariko dira giroa alaitzen.

**16:00.** Haur jolasei hasiera emango zaie.

**18:00.** Zezen txiki eta poney-ak.

**20:00.** Mulambo taldearekin batukada kalejira.

**21:30.** Herri afaria. Ondoren,

trikitilariekin erromeria gaua girotzeko.

**LEABURU**  
11:00. Gaztetxoentzat hamaiketakoa. Kontu kontalaria: Garazi Hach Embarek.

**20:00.** Asto proba: Astoa gehi bi laguntzaile, 6 kideren aurka.

Jai zoriontsuak pasa herriar nahiz kanpotarreil!

Okindegia - Kafetegia - Cozologia **Zai gaituzue!**

**KABELA**

Nagusia, 3 - Tel. 943 69 64 05  
ASTEASU

**LIZARBI**

Katza, mahai, zubi eta h.

Altzariak - Zargintza onberrara

Taldekideekin egiteko. Zuzeneko berriketa.

San Esteban auzoa  
Tel./Fax: 943 688 982 - TOLOSA

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Gutun irekia  
Belauntzako  
Batasunari eta  
Sustraiak-i

Aurtengo sanjoanetan *jai alternatiboak* antolatu dituzue Belauntzan.

Harrigarria, 300 biztanleko herria eta denetarako ematen du: Udalak antolatutako jaiak eta *alternatiboak* (beharbada gu, motzak, maila apalekoak, ez gara konturatu Belauntza udalerrira Bartzelonaren pare-

an dagoela eta han bezala posible direla era guztietako jarduerak. Agian, alde bakarra biztanle kopuruan egongo da: Belauntzan 300. Bartzelonan 3.000.000).

Historia pixka bat: 2006ko maiatzaren 4an Udalak idazki bat banatu zuen etxeetan (beti egiten dugun bezala), San Joan jaiak antolatzeko maiatzaren 10eko bileran parte hartzeko. Bertara ez zen azaldu Belauntzako Batasunako inor.

Hala ere, Udaleko alkate eta zinegotziak eta beste herritar batzuk hasi ginen jaiak antola-

tzen, beti bezala giro herriko batean.

Aukera izanda parte hartzeko Belauntzako Batasunakoek beraientzako jai alternatibopribatuak antolatzen dituzte (adibidez, Udaleko alkate eta zinegotziok eta herriko beste batzuk ez dugu jaso Belauntzako Batasunaren jai programarik) eta programarekin batera idazki bat banatzen dute herritarren parte-hartzea eskatzeko, erabakiak ezkutuan hartzen direla esateko, eta abar (sinesteinezkoa).

Harrigarria: Batasuna izan

taldearen izena eta justu kontrako erabakia hartu sanjoan antolatzerakoan: Belauntzako herria zatitzeko eta herrikoen arteko giroa gaiztotzeko: aparteko jaiak antolatu, gezurra oinarri duen idazkia banatu, haurrak jolastera ez bidali...

Zuen erabaki zatitzaile hau ez da berria: laz ere sanjoanetan eta Olentzero egunean berdin egin zenuten: haur guztiak bildu beharrean herriko Kultur Etxeak antolatutako Olentzero festan, aparteko festa antolatu, txikitatik herriko umeen artean giro txarra sortzeko.

Zeni egiten diozue mesede horrelako erabakiekin? Herriko ume eta neska-mutilei? Erantzun, mesedez.

Bide batez, erantzun itzazue 2006ko apirilaren 4an eta hilaren 11n HIRZAN argitaratutako idazki-gutun irekiak (gogoratuko zarete: Euskal Presoak Euskal Herrira ikurra Udaleko idazkietatik kendu beharri buruzkoa eta zuen uesteko alkatetza lapurretari buruzkoa. Erantzuna arazoitu arren, ez harria bota eta eskua gorde).

EDURNE ARBELEGI ▶ BELAUNTZAKO ALKATEA

ABALTZISKETA ▶

Eskolaren aldeko  
zozketako  
irabazlea

Abaltzisketako festetan Txalburu eskolaren aldeko txarrelak saldu egin zituzten, bertan txekorra zozketatuz. Igandean zozketa egin zuten eta Zaldibiako Xabier Iraztorza izan da zorionekoa, 1750 zenbakia baitzuen.

BIDEGOIAN ▶

Konposta etxean  
egiteko izen-  
ematea

Bidegoiango herrian, norberaren etxean sortutako materia organikoa konpostatu eta berrerabiltzeko laguntza jasotzeko eta horretarako izena emateko epea bukatzen ari da. Bertan parte hartzeko lorategi txiki bat edo baratza bat izan behar da, gero prozesu horren ondorioz lortutako konposta bertan berrerabiltzeko. Konpostagailua, horren erabilpenerako ikastaroa eta liburuxka eta aholkularitza zerbitzua doan emango zaizkie. Izena eman nahi duenak ueue@udal.gipuzkoa.net edo udaletxera deitu behar du: 943 68 11 09.

ALEGIA ▶ GIZARTEA

NEREA URBIZU

Igandean Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) Eguna ospatuko dute Alegian. Ekitaldiz bete izango da eguna, goizean goizetik. *Herria da gorputza, hizkuntza bihotza: euskararen taupada txintxarriion hotsa* da aurtengo UEMA Egunaren leloa.

Egun osoan zehar musika, jatekoak, edatekoak eta ekitaldi formalak izango dira. Hone-la, Alegiak UEMAko kide izango dela onartuko du.

UEMAren funtzioak

Udalerri euskaldunetan euskara izan da etxeetan jaso eta transmititzen den berba; hala ere, arlo formaleko zereginetarako —eskola, administrazioa, zerbitzu sozialak, komunikabideak...— duela gutxi arte lekurik egin ez zaionez, sukaldetan, erdarak sartu eta sartzen dira. Hau dela eta, mugimendu instituzional honen helburu nagusia erdarek betetzen dituzten funtzioak euskaraz bereganatzea da, hots, euskaraz normaltasun osoz bizi ahal izatea.

Hego Euskal Herriko egungo legeriak era eta maila batean edo bestean euskaraz bizitzeko eskubidea aitortzen die herritar euskaldunei; administrazioari, berriz, eskubide hau

UEMA Eguna  
txintxarrien  
hotsarekin  
errotuko da

Etzi ospatuko dute, musika, dantza eta txekor jate herrikoiarekin lagunduta



Alegiako Txintxarri abesbatzak ere emanaldia eskainiko du. HITZA

EGITARUA ▶

GOIZEAN

**Diana.** Herriko txistulari eta trikitilariekin.

**11:00.** UEMAko Batzar Nagusia, Kultur Etxean.

**12:00.** Udal Pleno aretoan Alegiako Udalaren batzara. Udalerri Euskaldunen

Mankomunitateko hautetsiek euskararen aldeko dekalogoa sinatuko dute.

**13:00.** Ekitaldia herriko plazan. Hitzaldia, dantzariak, bertsolariak, abesbatza...

**14:15.** Plazan, txekor-jatea. Ondoren, Garxot eta Edortarekin *Kantuz hi*.

ARRATSALDEAN

**20:00.** Zahagiardoa. Erromeria arratsalde osoan zehar izango da.

gauzatu dadin neurriak har ditzala exijitzen diote.

Honen aurrean, UEMAren zeregina da, «aitorpen hori gauzatu dadin, beharrezko neurriak hartzea eta giza harremanak sektore eta arlo guztietan, eta lagunartean, normaltasunez euskaraz burutu ahal izateko bideak zabaltzea». Herri guztiak koordinatu eta plangintza baten inguruan egituratzeaz ere arduratzen da UEMA.

SELEKTIBITATEAN  
2006. URTEAN  
% 100 GAINDITUAK!

BATXILERGOAK

- Giza eta Gizarte Zientziak
- Natur eta Osasun Zientziak
- Tecnologikoa

LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK

Erdi Mailakoak

- Mekanizazioa
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak

Goi Mailakoak

- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Instalazio Elektroteknikoak
- Gizarte eta Kultur Animazioa

KOLOKAZIO MAILA  
OSO ALTUA!

Enpresa-praktikak bertan eta atzerrian (aurten ipar irlandan, polonian eta lituanian)!



Matrikula epea:  
ekainaren 30etik uztailearen 6 arte

SANTA BARBARA AUZOA eta KARMELO LABAKA  
HERNANI  
TELEFONOA: 943 551188  
WEB: www.hernanibhi.com  
E-MAILA: institutua@hernanibhi.com



KOMUNIKABIDEAK ▶

# «Lehentasuna euskara hutsezko eskaintza indartzea da», prentsako arloaren ustez

Jaurlaritzak sektorerako aurten 59.050 euroko igoera soilik aurreikusi du eta «irizpide berriak aplikatzen hasi da, hedabideekin hausnarketarik egin gabe»

## ERREDAKZIOA

Euskarazko prentsaren sektoreko 48 eragilek berriro eskaera egin diote Eusko Jaurlaritzari: «Lehentasuna euskara hutsezko eskaintza indartu eta zabaltzen jarri beharra dago».

Joan den urrian egin zion sektoreak aurreko eskaera Jaurlaritzari: 2006ko aurrekontuetan euskara idatziko hedabideen arloan diru laguntza milioi batean handitu zezala.

Baina Jaurlaritzak ez du kontuan hartu hori, *euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko* atera duen diru laguntza deialdian, hazkundea 59.050 eurokoa baino ez delako euskarazko prentsarentzat. «Bost urteko izoztea eta gero, hori baino ez da igoera», esan dute sektoreko eragileek orain atera duten agirian.

Jaurlaritzak aurten arlo horretan laguntzetan egindako igoeran, tokiko telebista eta erdarazko egunkarietako euskarazko gehigarriak lehenetsi ditu: 350.000 euro telebistentzat eta 507.650 erdarazko hedabideetako euskarazko gehigarrientzat.

Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak aitortu du tokiko telebisten arlokoa izan dela «igoerarik nabarmenena» («%233,30eko gehikun-



Euskarazko prentsaren sektoreko eragileak, iazko urrian, Donostian egindako agerraldian, Eusko Jaurlaritzari 2006an diru laguntza milioi euro batean handitzeko eskatu ziotenean. HITZA

tza)), «guztiz garrantzitsua delako horrenbeste telebista berri izango ditugun mundu honetan euskarak presentzia duina eta sendoa izatea».

Erdarazko egunkarietako emandako diru laguntza ere (diru partida berria da hori) justifikatu nahi izan du sailburuordeak: «Euskararen presentzia hedabideetan gero eta esanguratsuago egin nahian, gaztelania nagusi duten egunkarietan ere, euskal irakurle potentzialaren gehiengoak irakurtzen duen prentsa dela kontuan hartuta, euskara hutsezko

gehigarriak sortzeko diru laguntza-ildo berria ezarri dugu, 507.650 euro jarritz».

## Garapena, euskarazkoek

Euskarazko prentsako eragileen ustez, baina, azken urteetan aurrera egin dutenak euskarazko hedabideak dira, eta horiek «indartzea» izan behar da «lehentasuna». «Nagusiki erdara erabiltzen duten hedabideek hainbat saiakera egin dituzte (ohiko orrialdeetan berriak euskaraz idatzi, euskarazko gehigarriak egin...) bai-

na orain arte ez da garapen nabarmenik egon. Euskarazko hedabideek, ordea, garapen ikusgarria izan dute: duela 30 urte lauzpabost aldizkari izate-tik 100 hedabide baino gehiago izatera pasatu gara».

Sektorea prest dago Jaurlaritzarekin laguntzetako irizpideez hitz egiteko. «Hitz egiten hasteko momentua da. Jaurlaritzak ere azaldu du prestutasuna. Denbora aurrera doa eta ez da hedabide eta Administrazioaren artean hausnarketarik egin; bitartean, irizpide berriak aplikatzen hasi dira».

## SINATZAILEAK ▶ EUSKARAZKO PRENTSAKO 48 ERAGILE

- ▶ Aizu!
- ▶ Jakin.
- ▶ Uztaro.
- ▶ Ipurbeltz.
- ▶ Elhuyar.
- ▶ Nabarra.
- ▶ Berria.
- ▶ TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA.
- ▶ Oarsoaldeko Hitza.
- ▶ Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza.
- ▶ Urola Kostako Hitza.
- ▶ Irutxuloko Hitza.
- ▶ Goierriko Hitza.
- ▶ Busturialdeko Hitza.
- ▶ ON.
- ▶ Goierritarra.
- ▶ Aikor.
- ▶ Aiurri.
- ▶ Aldaize.
- ▶ Anboto.
- ▶ Artzape.
- ▶ Baleike.
- ▶ Barren.
- ▶ Begitu.
- ▶ Berton.
- ▶ Danbolin.
- ▶ Drogeteniturrri.
- ▶ Eta Kitto!
- ▶ Galtzaundi.
- ▶ Gaztebulo.
- ▶ GEU.
- ▶ Guaix.
- ▶ Hernaniko Kronika.
- ▶ Karkara.
- ▶ Maxizatzen.
- ▶ Noau!
- ▶ Otamotz.
- ▶ Pil-Pilean.
- ▶ Prest.
- ▶ Pulunpe.
- ▶ Txintxarri.
- ▶ Txaparro.
- ▶ UK.
- ▶ Uztarrria.
- ▶ Topagunea.
- ▶ BAT.
- ▶ Kalaputxi.
- ▶ Goienkaria.

## AGIRIA ▶ EUSKARAZKO PRENTSAREN SEKTOREAREN IDATZIA EUSKO JAURLARITZARI

Agiri hau egin dute euskarazko prentsako 48 eragilek Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailera begira:

«Euskarazko hedabideen eta Eusko Jaurlaritzak hauen sustapenerako banatzen dituen diru laguntzen gainean iritzi asko entzun dira azken asteotan. Hiru punturen gainean egin nahi genuke ekarpena ohar hau sinatzen dugun euskarazko hedabideetako eragileok:

▶ Bost urteko izoztea eta gero, euskarazko prentsarentzako diru partida milioi bat eurotan handitu zezala 2006an eskatu genion Eusko Jaurlaritzari.

Deialdian 950.000 euro gehiago jaso dira. Horietatik, ordea, 59.050 euro baino ez dira milioi bateko igoera eskatu zuten prentsa-idatziarentzat.

▶ Azken urteotan Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hedabideekin diru laguntzak asko entzun dira azken asteotan. Hiru punturen gainean egin nahi genuke ekarpena ohar hau sinatzen dugun euskarazko hedabideetako eragileok: ▶ Bost urteko izoztea eta gero, euskarazko prentsarentzako diru partida milioi bat eurotan handitu zezala 2006an eskatu genion Eusko Jaurlaritzari.

Agiri hau sinatzen dugun eragileen iritziz, Administrazioa eta hedabideen artean irizpide horietaz hitz egiten hasteko momentua da. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari azaldu izan diogu mahai baten inguruan gai hauetaz hitz egiteko gure borondatea eta, Kultura Sailak berak ere azaldu izan du horretarako prestutasuna. Denbora aurrera doa eta ez da hedabide eta Administrazioaren artean hausnarketarik egin; bitarte horretan, irizpide berri batzuk aplikatzen hasiak dira jadanik. Guk hausnarketa horri ekiteko prest gaudela berretsi nahi dugu.

▶ Hedabideetan euskararen presentzia handitzeko eta euskarazko kontsumoa areagotzeko euskarazko hedabideek edo elebidunek duten garrantzia eta funtzioaren inguruko eztabaida ere ez da berria. Orain arteko azterketek erakusten dituzte nagusiki erdara erabiltzen duten hedabideetan euskararen presentzia ez dela igo euskaldunen kopurua handitzen joan den adina. Nagusiki erdara erabiltzen duten hedabideek hainbat saiakera egin dituzte (ohiko orrialdeetan berriak euskaraz idatzi, euskarazko gehigarriak egin...) baina orain arte ez da

garapen nabarmenik egon. Euskarazko hedabideek, ordea, garapen ikusgarria izan dute: duela 30 urte lauzpabost aldizkari izate-tik 100 hedabide baino gehiago izatera pasatu gara. Eskaintza handiagoa eta aniztagoia da eta, era berean, askoz ere irakurle kopuru handiagoa dute euskarazko hedabideek (informazio orokorrekoek, tokian tokioek zein espezializatuek). Beraz, euskarazko hedabideak argitaratzen ditugun eragileon aldetik, eta euskarazko eskaintzan oraindik ere zeregina handia dagoela kontuan harturik, lehentasuna euskara hutsezko eskaintza indartu eta zabaltzen jarri beharra dagoela uste dugu».

EUSKARA ▶

# Gaur Bai Euskarari Ziurtagirien banaketa ekitaldia Leitzaldean

Aresoko eta Leitzako 58 eragilek jasoko dituzte ziurtagiriak; Mendiguren Kontseiluko Idazkari Nagusia bertan izanen da



lazio banaketan herrietako eragileak ziurtagiriak jasotzen; bestek beste, Mendiguren ere hor zen. J. ASTIBIA

## JAIONE ASTIBIA

Urte osoan zehar euskararen alde hartutako eta betetako konpromisoen ezaugarri, Aresoko eta Leitzako 58 eragile, enpresa, elkarte eta erakunde, Bai Euskarari Ziurtagiriak jasoko dituzte, gaur iluntzean, Xabier Mendiguren Kontseiluko Idazkari Nagusia bertan dela, egitekoa duten ekitaldian.

Leitzako plazan, 20:00etan da hastekoa Bai Euskarari Ziurtagirien banaketa ekitaldia. Noski, aitatu bezala, Kontseiluko ordezkariarekin batera, eta bi udaletako ordezkariak ere han direla, bertan izanen dira urte guztian zehar bakoitzak bere eremutik euskararen alde lanean aritu eta heldu denerako ere konpromisoak berriro dituzten Aresoko

nahiz Leitzako askotariko eragileak. Aurten, 58 dira, iazko jardueran baino 9 ziurtagiri berri gehiago; Aresokoak 9 omen dira eta Leitzakoak, berriak, 49.

### Herritar guztientzat irekia

Aitatu aurten ekitaldia Leitzako plazan egingen dutela —eguraldiak ez balu utziko, bertako udaletako batzar aretoan egingen omen litzateke, antolatzaileen esanetan—, horrela herritar guztientzat irekiagoa egin nahi izan dutelako, euskararen alde bi herrietako eragileek egin duten lana eta aurrerantzean ere horretan jarraitzeko prest daudelarik konpromiso berriak hartu dituztela jendarteari ere erakusteko. Beraz, Aresoko eta Leitzako herritarrei ekitaldian parte har dezaten

gonbita egingen diela jakinarazi du Kontseiluak.

Hala, ekitaldia festa giroan egingen dute: txalapartariak, dantzariak eta bertsolariak izanen dira osagarri modura; eta ziurtagirien banaketa aurrerik, jarraipen batzordeko ordezkariak eta eragileak berriak eta Kontseiluko Idazkariak hitza hartuko dute.

Esan hiru Bai Euskarari Ziurtagiri mota daudela: *Bidean* izenekoa, eragileak gutxienez esparru batzuetan euskaraz egingen duela eta egingen duela ziurtatzen duena; *Guk zerbitzua euskaraz* sailekoa, eragileak jendaurreko lana euskaraz egingen duela eta egingen duela ere ziurtatzen duena; eta *Guk zerbitzua eta lana euskaraz*, eragileak esparru guztietan euskaraz egingen eta egingen dutela ziurtatzen duena.

## LEITZA ▶ KIROLAK



Duela bi urteko zaldi martxa izan zen aurreneko antolaketa. J. A.

## Inguruarte zalditegi bihurtuko da oso-osorik

Aurrera Perra taldeak, ikuskizunez betetako lehendabiziko Zaldi Eguna egingen du bihar

### J. ASTIBIA

60 zaldi inguru; zalgurdiak; doma edo hezikera modu desberdinak; perraketa; jokoak... Horiek eta gehiago ikusteko aukera izanen da bihar egun guztian zehar, Inguruarten prestatu duten Zaldi Egunean. Lehendabiziko aldia da Leitzan horrelakorik egingen dela eta bertako Aurrera Perra taldeak antolatu du.

Leitzako zaldi zaleek osatutako talde honetako kideek urteak daramatzate zaldiz ibiltzen; hango eta hemengo zaldi martxetan parte hartuz, ibilaldiak egingen... Duela bi urte hemen bertan antolatuta zuten mugaz mugako ibilaldia, 40 bat zaldunen parte-hartzea izan zuena; iaz jarraipena eman zioten; eta aurten udazkenara itxaron gabe, Zaldi Eguna egitea bururatu zaie, «zaldizkoentzat ez ezik, herritarrentzat oro har ere zerbait egiteko gogoia» zutelako; hala ere dio antolakuntzak bidaltako oharrak.

Bururatu eta egin, egun osoarako egitarau bete prestatu du, hortaz, Leitzaldeko zaldi zaletuen taldeak. Goizean, 09:00etan, inguruko men-

dietan barrena egingen duten ordu pare bateko ibilaldia izan ezik, Zaldi Egunaren gunea Inguruarte izanen da; 11:00etatik aurrera, goiz eta arratsalde, bertan egingen baitira prestatu dituzten ekintza guztiak.

Ekintzak, bereziki zaldizkoentzat bideratutakoak ez ezik, zaldi gainean ibili nahiko lukeenarentzat ere izanen omen dira, horretarako aukera eskainiz. Hala, zaldiz ibiltzeko jakin beharreko hastapen urratsak ikasteko Trek teknika landuko dute, horretarako jarriko duten zirkuituan zehar. Zaldi domako adituek, berriz, heziera desberdinen erakustaldiak egingen dituzte, espainiarra, westerra, naturala; haurrek poniz ibiltzeko aukera izanen dute; eta helduek, berriz, herrira joan-etorrian ibiliko den zalgurdian, bi zaldi ederrez tiratuta.

Bien bitartean, arraza desberdinetako zaldi eta behorren (arabaiarrak, amerikarrak, potokak...) erakusketa egingen dute; perraketa, hotzean eta beroan nola egingen den ikusteko aukera ere izanik.

Ikuskizuna ere ez da inolana nahikoa izanen, beraz, edozeinentzat.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Abaltzisketa-ikaztegieta.** Idoia Santxez ipuin kontalaria. 17:00etan, Abaltzisketako liburutegian; 18:15ean, ikaztegietaokan.  
**Tolosa.** Eskubide zibil eta politikoen alde, bilkura. 20:00etan, Trianguloan.

**JAIK**

**Amaroz (Tolosa).** 16:00etan, haur jolasak; 18:30ean, sari banaketa eta txokolatada; 20:00etan, Tolosako Musika Banda eta Abeslari Lagunak abesbatza; ordu berean, koadrilen trikipoteoa eta afaria sagardotegian; 00:00etan, Atila y los Unos.  
**Asteasu.** Jubilatuta eta koadrilen eguna. 11:15ean, meza eta jubilatuentzako hamaiketakoa; 11:30ean, Telleria eta Zeberio bertsolariak eta Xapre eta Zaharra trikitilariak; 14:30ean, jubilatuen bazkaria eta koadrilen bazkaria; arratsaldean, Laja eta Izer eta Epelde eta Lutxurdio trikitilariak; 16:00etan, haur jolasak; 18:00etan, zezen txiki eta poney-ak; 20:00etan, Mulambo; 21:30ean, afaria; gero, trikitilariak.  
**Areso.** 21:00etan, afaria.  
**Leaburu.** 11:00etan, hamaiketakoa Garazi Hach Embarek kontalariarekin; 20:00etan, asto proba.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.  
**Ibarra.** Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# «Esperientzia aberasgarria»

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Poloniatik, Italiatik, Erresuma Batutik eta Finlandiatik iritsi berri dira Tolosaldea Goi mailako LHlko 14 ikasle**

**ERREDAKZIOA**

**E**sperientzia aberasgarria». Hala definitu dute Leonardo da Vinci programaren bidez Europako hainbat lurraldetan pasatutako denbora Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuko (LHI) ikasleek. Martxo-tik ekainera bitarte ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan dute atzerriko hainbat enpresetan, eta «errepikatze prest» etorri dira guztiak.

6 espezialitateko 14 neska-mutilek izan dute aukera esperientziaz gozatzeko: Nagore Ezeiza adunarra, Andoni Albi-su billabonaterra, eta Olaberriako Felix Alonso eta Zumarragako Maider Martin Erresuma Batuko zenbait enpresetan izan dira; Zegamako Bernat Berasategi Finlandiako Kemppi Oy enpresan (Lahti); Antxon Arsuaga tolosarra, Eider Oiarbide aldabarra, Nekane Urroz leitzaarra, eta Aitor Zabala eta Iraia Campo alegiarrak Poloniako Wrozamet-en (Fagor etxetresnak); eta Igor Arraigo



Antxon Arsuaga, Eider Oiarbide, Nekane Urroz, Aitor Zabala eta Iraia Campo Tolosaldea LHlko ikasleak, Polonian. HITZA

aresoarra, Garikoitz Etxegarai eta Iñaki Zabalo leitzaarak eta Beasaingo Igor Rodriguez Italiako FOM Industrie eta Staff-Ice System enpresetan.

Joan aurretik eta han bertan ere hizkuntza ikastaroak egin dituzte. «Gero, lan mundura gerturatzeko aukera izan dute, ikasitakoa praktikan jarri, beraien arloan lana nola egiten den ikusiz, gehiago ikasiz...», azaldu dio HITZari Xanti Alberdi Tolosaldea LHlko irakasle eta egitasmoaren koordinatzaileak.

Haren iritziz, esperientzia hau baliagarria da lan arlorako, «etorkizunera begira pauso garrantzitsua» baita. Baina norberaren garapenerako («are aberasgarriagoa»: «Esperientzia aparta da: jendearekin harremana, beste kulturak eza-gutu, hizkuntzak... Etxetik urrun zaude, eta zure kabuz egin behar dituzu gauzak. Hel-dutasuna irabazten da halako-etan, eta denontzat gomendagarria dela iruditzen zait. Ikas-tetxean dugun balio erantsia dela esango nuke, sari bat».

**AGURRAK ▶**



**ZORIONAK**  
 Unai Agirreureta Tobar (Alegia).  
 Gaur 9 urte (eta osaba Iñaki).  
 Oihana eta familiaren partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

**hitza** agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**ekar**

Utzi dena adituen esku. Erreserbatu orain testuliburuak eta zoaz lasai oporretara.

Adituen esku utzi dena testuliburuak erreserbatu ditugu eta lasai gozatu oporretara.

Testuliburu eta ikasmaterialetan adituak

www.ekar.com

**ekar** ekar elkartetuen dugurria